




# Itsas-Oarsoaldea

**Txostenaren aurkezpena**
**(erref. E5026 v001)**

**2020 / Azaroa**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia
Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro

# AURKIBIDEA


0. AURREKARIAK ........................................................................ 3

1. HELBURUAK ........................................................................ 4

2. TXOSTENAREN EGITURA ........................................................................ 5

3. METODOLOGIA ........................................................................ 6

4. SEKTOREA EUROPAN ETA ESPAINIAN ........................................ 7

5. SEKTOREA ESKUALDEAN ........................................................................ 9

6. ESKUALDEKO FUNTSEZKO ERAGILEAK ........................................ 11

7. KANPOKO ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK ................................ 12

8. SEKTOREAREN GAKOAK ........................................................................ 14

9. IBILBIDE-ORRIA ........................................................................ 15

# 0. AURREKARIAK

**ITSAS EKONOMIA**

**Apustu estrategikoa** → **Eskualdeko Plan Estrategikoa 2025**

Oarsoaldea2025




**Proiektu eragilea** → **Oarsoaldeko Biziberritze Sozioekonomikorako Eskualdeko Plan Estrategikoa**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
+
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# 1. HELBURUAK



1. Sektoreak Oarsoaldean duen dimentsioa eta balio ekonomikoa aztertzea
2. Etorkizunera begira potentzialtasunak detektatzea
3. Ibilbide-orria ezartzea

# 2. TXOSTENAREN EGITURA



1. Sarrera eta metodologia
2. Sektorea Europan eta Espainian
3. Sektorea eskualdean
4. Eskualdeko funtsezko eragileak
5. Kanpoko esperientzia interesgarriak
6. Ondorioak. Ibilbide-orria

**Eranskinak:** Establezimenduen direktorioa (DIRAE-EUSTAT)

Enpresen zerrenda (hainbat iturri)

## 3. METODOLOGIA




1 **Berrikuspen bibliografikoa eta dokumentala**

- *Tokiko, estatuko eta nazioarteko memoriak eta txostenak*

2 **Estatistiken analisia**

- *Eustat, Eurostat, Central de Balances, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Saila*

3 **Funtsezko erakunde eta pertsonekin elkarrizketak**

- *Lasa Naval*
- *Pasaiako Arrantzaleen Kofradia*
- *Blas de Lezo*
- *Merka Oiartzun*
- *Azti*
- *Pasaiako Portu Agintaritza*
- *MIK*

## 4. SEKTOREA EUROPAN ETA ESPAINIAN




| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **EB** (2018) | Enplegua | **4.997.080** | **pertsona** | ***(enplegu osoaren % 1,8)*** |
| | Fakturazioa | **749.719** | **mill. €** | |
| | Balio erantsia | **218.275** | **mill. €** | ***(guztiaren % 1,3)*** |
| **ESPAINIA** (2018) | Enplegua | **944.255** | **pertsona** | ***(enplegu osoaren % 4,9%)*** |
| | Fakturazioa | **83.198** | **mill. €** | |
| | Balio erantsia | **32.736** | **mill. €** | ***(guztiaren % 3)*** |

# 4. SEKTOREA EUROPAN ETA ESPAINIAN

## EBko ekonomia urdinaren sektore tradizionalen egoera eta bilakaera azken urteetan

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ITSAS BALIABIDE BIZIAK** | | | |
| **Arrantza** | heldua eta egonkorra (produkzioa) | ↘ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Akuikultura** | heldua eta geldi aldian (produkzioa) | ↘ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Prozesatzea eta banatzea** | heldua eta egonkorra | ↔ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **ITSAS BALIABIDE EZ BIZIAK** | | | |
| **Petrolioa eta gas naturala** | heldua eta geldi aldian hazkuntzarako | ↘ enpleguak | ↘ irabaziak |
| **Itsas agregatuen erauzketa** | heldua eta egonkorra | ↘ enpleguak | ↘ irabaziak |
| **Petrolioari eta gasari laguntzeko jarduerak** | heldua eta gainbeheran | ↗ enpleguak | ↘ irabaziak |
| **Bestelako meataritzari laguntzeko jarduerak** | heldua eta zabaltzen | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **ITSAS ENERGIA BERRIZTAGARRIAK** | | | |
| **Itsasoko haize-energia** | zabaltzen | | |
| **PORTUKO JARDUERAK** | | | |
| **Biltegiratzea** | heldua eta hazten | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Kargak erabiltzea** | heldua eta geldi aldian hazkuntzarako | ↘ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Akuikulturako proiektuak egitea** | heldua eta gainbeheran | ↘ enpleguak | ↘ irabaziak |
| **Garraioari lotutako zerbitzuak** | Heldua eta hazten | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **ITSASONTZIEN KONPONKETA ETA ERAIKUNTZA** | | | |
| **Ontziak eta egitura flotatzaileak eraikitzea** | heldua eta zabaltzen | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Josteta eta kirol ontziak egitea** | heldua eta geldi aldian | ↘ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Itsas makineria** | heldua eta gainbeheran | ↘ enpleguak | ↔ irabaziak |
| **Itsas ekipamendua** | heldua eta zabaltzen | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Ontzi eta itsasontzien konponketa eta mantentze-lanak** | heldua eta zabaltzen | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **ITSAS GARRAIOA** | | | |
| **Bidaiarien garraioa** | heldua eta zabaltzen | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Salgaien garraioa** | heldua eta gainbeheran | ↘ enpleguak | ↘ irabaziak |
| **Itsas garraioko ekipamenduaren alokairua eta errentamendua** | heldua eta gainbeheran | ↘ enpleguak | ↘ irabaziak |
| **KOSTALDEKO TURISMOA** | | | |
| **Ostatua** | heldua eta zabaltzen | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Garraioa** | heldua eta geldi aldian, hazkundera begira | ↘ enpleguak | ↗ irabaziak |
| **Beste kontzeptu batzuk** | heldua eta egonkorra hazkundera begira | ↗ enpleguak | ↗ irabaziak |

# 5. SEKTOREA ESKUALDEAN

## Itsas ekonomiaren zifra garrantzitsuak Oarsoaldean, aztertutako sektoreetan

**Establezimendu kopurua eta eragileak**
**> 250**

**Enplegua**
**> 1.600**
*> eskualdeko enpleguen % 7*

**BE aztertutako itsas sektoreena**
*Eskualdeko jarduera guztien BE baino % 28 handiagoa*

| | Atzemandako enplegua | Balio erantsia / enplegua (estimazioa) |
|---|---|---|
| Handizkako merkataritza | 513 | 63,9 |
| Itsas garraioa eta jarduera erantsiak | 400 | 90,1 |
| Eraikuntza eta konponketa | 201 | 63,9 |
| Itsas arrantza | 137 | 127,7 |
| Hezkuntza, ikerketa eta itsas ondarea | 189 | |

**Elkarrte eta Erakunde kopurua**
**36**

## Sektorearen adierazle nagusiak

| | Arrantza | Arrainen, itsaskien eta beste elikagai batzuen eta arrainen prozesatze- eta kontserba-sektorearen handizkako merkataritza | Espezializatutako establezimen-duetan arrainen eta itsaskien txikizkako merkataritza | Ontzien eraikuntza eta konponketa | Itsas garraioa eta haren jarduera osagarriak, salgaien manipulazioa eta garraioarekin lotutako beste jarduera batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Establezimendu kopurua** | **19** | **93** | **24** | **12** | **22** |
| **Enplegua** | **137** | **513** | **46** | **201** | **400** |
| **Gipuzkoako enpleguaren gaineko ehunekoa** | **14,2** | **49,0** | **8,3** | **--** | **74** |
| **Ustiapeneko diru-sarreren estimazioa** *(milaka €)* | **56.553** | **327.548** | **5.665** | **38.923** | **80.787** |
| **Negozio zifraren estimazioa** *(milaka €)* | **55.622** | **326.219** | **5.641** | **38.570** | **80.553** |
| **Langile-gastuen estimazioa** *(milaka €)* | **8.010** | **21.765** | **1.195** | **8.443** | **25.312** |
| **Balio Erantsiaren esimazioa** *(milaka €)* | **17.497** | **32.767** | **1.253** | **12.852** | **36.053** |

# 6. ESKUALDEKO FUNTSEZKO ERAGILEAK

- Pasaiako Portu Agintaritza
- Prestakuntza zentroak:
  - Blas de Lezo
  - Don Bosco
- Ikerketa zentroak:
  - AZTI
  - Tknika
- Itsas ondareko zentroak eta baliabideak:
  - Albaola
  - Mater Museoa
  - Baliabideak:
    - Kultura-ondarea
    - Biodibertsitatea
    - Geodibertsitatea

Aztertutako alderdiak:

- Enplegua, instalazioak eta magnitude ekonomikoak
- Jarduera eta proiektuen arloa
- Ekonomia urdinean eskainitako zerbitzuak
- Adierazten dituzten ikuspegiak eta ahalmenak

# 7. KANPOKO ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK

- **Gijón Azul**
- **Madrilgo Arrantzaleen Handizkako Enpresarien Elkartea**
- **Vigoko Portuko Blue Growth**
- **Pôle Mer Bretagne Atlantique**



Asociación de Empresarios Mayoristas de Pescados de Madrid

BLUE GROWTH

PÔLE MER BRETAGNE ATLANTIQUE

## 7. KANPOKO ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK

### Irakaskuntza nagusiak: Pôle Mer Bretagne Atlantique




- Esperientzia mistoa: itsasoaren inguruan bikaintasun-komunitate bat sortuz.
  - Ikerketa.
  - Tamaina desberdineko enpresa multzoa (283), prestakuntza- eta ikerketa-erakundeak (50) eta beste mota batzuetako erakundeak (40).
- Helburua: berrikuntzarako gaitasuna eta hazkundea bultzatzea eta ikusgarritasuna ematea.
- Tokiko ekimena, Estatuaren babesarekin eta bazkide instituzionalen eta enpresen eta zentroen kuoten parte-hartzearekin, finantzaketa-iturri garrantzitsua izanik.
- Partenaire Kluba (19), elkartekideei zerbitzu berezituak ematen dizkiena (bankuak, inbertsio-funtsak, etab.).
- Egitura txikia (10 pertsona zerbitzu orokorretan + 20 ingeniaritzan, dedikazio puntualarekin, bazkideek jarritakoak). Instalazio murriztuak, partaide guztien buru gisa, proiektuak bultzatuz, finantzaketa bilatuz, aholkatuz eta proiektuak babestuz.

# 7. KANPOKO ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK

## Irakaskuntza nagusiak: Vigoko Portuko Blue Growth

- **Portu Agintaritza batek gidatua eta Estatuko Portuak erakundeak babestua, portu berritzaile, berde, konektatu eta Europako Batzordearen Blue Growth estrategia bereganatzearen alde egiten du, ekonomia edo hazkunde urdinarekin lotutako arloetan inbertsio teknologikoa berrindartzeko.**
- **Portu Agintaritzak, bere funtzio tradizionala gaindituz, modu aktiboan parte hartzen du portu-erkidegoaren garapenean.**
- **Plan estrategiko batean oinarritzen da (44 ekintza, 207 milioi euro 2016-2020rako), eta 250 eragilek parte hartzen dute (administrazioa, sektore pribatua, prestakuntza- eta ikerketa-erakundeak, gizarte zibila).**
- **Logistikaz gain, nabarmentzekoak dira arrantzan eta merkaturatzean egindako esku-hartzea, energia, bioteknologiaren aplikazioa portu-esparruan eta prestakuntza, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin lankidetzan arituz.**



# 8. SEKTOREAREN GAKOAK

## Sektorearen egungo eta etorkizuneko egoeraren gakoak Oarsoaldean



a. Europako esparruak ekonomia urdinaren sektorea bere horretan identifikatzen du, eta bere ezarpenean eta etorkizunerako itxaropenetan oinarrituta babesten du. Horrek bidea markatzen dio Oarsoaldeari.

b. Esperientzia arrakastatsuek asmo handiko apustuei aurre egitea bideragarria dela erakusten dute.

c. Eskualdeko eta lurraldeko plangintzan estrategiak egon arren, zaila da horiek ezartzea eta Oarsoaldea EAEko erreferente bihurtzea, Euskadiko Ekonomia Urdinerako estrategia instituzional globalik ez dagoelako.

d. Sektoreak ezarpen esanguratsua du Oarsoaldean.

e. Eskualdeak eragile garrantzitsuak ditu, eta horien eginkizuna indartu egin beharko litzateke, ekonomia urdinaren bultzatzaile gisa.

f. Trakzio-berrikuntzako proiektuetan eta eragile publiko eta pribatuen sustapenean dagoen defizitak hedapena zailtzen du.

g. Arrantza-flota uzkurtu egin da, baina beste portu eta titulartasun batzuetako ontzietatik datozen deskargek eta arrainaren merkataritzaren pisuak egitura indartsua osatzen dute, Oarsoaldeko ekonomia urdinaren bereizgarrietako bat dena.

h. Hainbat eremutan aprobetxatzeko aukerak identifikatzen dira.

## 9. IBILBIDE-ORRIA

### Potentzialtasunak



- Itsas baliabide bizien merkataritza, prestaketa eta eraldaketa
- Automobilen, edukiontzien, produktu siderurgikoen eta potasen trafikoa
- Ontzien eraikuntza eta konponketa
- Industria eolikoa (dorreak eta pieza handiak)
- Ikerketa eta ingurumena (ekonomia zirkularra, klima-aldaketa eta biodibertsitatea)
- Prestakuntza espezializatua (ardatza: bioteknologia urdina)
- Aisialdiko nabigazioa
- Itsasoari lotutako aisialdiko jarduerak (kirola eta urpekaritza)
- Itsasertzeko turismoa (itsas ondarea eta turismo kulturala)

# 9. IBILBIDE-ORRIA

## Epe laburreko ekintzak

- Topaketa- eta dinamizazio-gune bat antolatzea, eragileak aurrez inplikatuz ➔ *Oarsoaldea Garapen Agentzia*
- Eragile giltzarriei eskatzea eskualde-mailan ekonomia urdina planifikatzeko eta bultzatzeko tresna bat egin dezatela, beren gaitasunak aprobetxatuz ➔ *PPA eta Azti*
- Talka-plan bat gauzatzea:
  - Lonjako obrak amaitzea ➔ *PPAk obrak lizitatzea eta gauzatzea*
  - Ontzigintza sustatzea plan espezifiko baten bidez ➔ *Pasaiako Portuaren 2015-2025 Plan Estrategikoan 2016-2017rako aurreikusitako plana egitea (PPA)*
  - Gutxiegi erabilitako espazioen balioa nabarmentzea, balio erantsiko merkataritza-jarduera berriak eta portu-jarduerari lotutako hiri-ekipamenduak sustatuz, PPA Plan horretan bertan egindako proposamenaren arabera ➔ *Ipar Herrerako sektoreak ekonomia urdinerako dituen potentzialtasunak eta aukeren aprobetxamendurako analisi baterakoia.*
  - AZTItik gertu dagoen itsas ikerketa zientifikoa zabaltzeko gunea, ekipamendu eta espazio leheneratuak lotzen dituen ikerketa-ardatz bat antolatuko duena. Itsas Ikerketarako Eremu bat eratzea hurbileko itsasertzean, eskualde horretako ikerketa- eta prestakuntza-zentroen parte-hartzearekin ➔ *Azti eta eskualdean ezarritako prestakuntza, ikerketa, ondare eta ingurumen zentroak.*
  - Programatutako hirigintza-ekintzak amaitzea (lonjako plaza eta estalki irisgarria urbanizatzea, Arrandegi Kaiaren pasealekua, Herrera Mendebaldeko biltegien estalkian sortutako espazioen erabilera, Lezo-Donibane bidegorria), bisitarako korridore erakargarri bat eratuz, bertako biztanleentzat eta itsasoari lotutako jarduerak lotzeko ➔ *Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2020ko urrian eskatutako Portua-Hiria Batzordea abian jartzea, erakundeen eta sorosleen arteko topagune gisa.*
  - Donibaneko eta Hospitalilloko uraren kalitate txarraren arazoak konpontzea eta aurrera egitea "Pasaia hiri-portu eredugarria izan dadin ingurumen-kudeaketagatik", 2014ko "Pasaiako Portuaren egiturazko azterketa prospektiboa" izenekoan jasotzen zenez, 2025erako helmuga gisa ➔ *Pasaiako badiaren ingurumen-hobekuntza lortzeko asmoz 2012ko urtarrilean eratutako erakunde arteko batzordea berraktibatzea*